

## 13.8. Kaxkoan (1. area) sartzeko baimen txartela eta bertakoek aparkatzeko pegatina bereizgarria eskuratzeko eskaera

Espediente kodea: KASK

### Zer da?

### Zertarako da?

Kaxkoan bizi diren auzotarrak aparkatzeko bereizgarria eskuratzeko. Kale Nagusia, Kardaberaz kalea, Gudarien plaza, Atzieta kalea, Iturriaga kalea, Plaza Berria, Ezkiaga pasealekua eta Felipe Sagarna "Zapa" karkaba osoak, Nafar kalea 10-12 zk. eta Urbieta kalea 1 zk.


### Nork eska dezake?

1. Kaxkoan erroldatuta dauden pertsonak, eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.
2. Kaxkoan baimendutako badoa edo pasabidea duten garaje edo garaje-plazen jabeek edo errentariak.

### Aurkeztu beharreko agiriak


1. [Eskaera-orria](#) eredu normalizatuan
2. Ondorengo dokumentuak (jatorrizkoak eta fotokopiak):
  - Eskatzailearen Nortasun Agiria
  - Gidatzeko baimena (indarrean egon behar du)
  - Bereizgarria eramango duen ibilgailuaren zirkulazio baimena.
  - Ibilgailuaren aseguruaren poliza eta azken ordainagiria.
  - IATren ikuskapenaren ziurtagiriaren fotokopia edo, hala badagokio, IAT egin beharrik ez izatearen justifikazioa.
    - Ordenantzan adierazitako kaleetan garaje baten jabea edo errentaria ez dela eta hura erabiltzeko inolako eskubiderik ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena.
    - Bereizgarria emateagatik finkatutako tasak ordaindu izanaren egiaztagiria.
    - Udalak ofizioz egiaztatuko ditu eskatzen diren gainerako baldintzak (udal zergen ordainketak egunean izatea,...)
    - Hala badagokio, adierazitako kaleetan garaje baten jabea edo errentaria dela egiaztatzen duen agiria.

### Nola eskatzen da?


 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

 **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

 **Internet:** udalaren [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriko egoitza elektronikoa

 **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

### Zenbat kostatzen da?

Herriko hainbat kaleetara sartzeko kontrol sistema: Sartzeko kontrol sistemaren txartela **10€-ko Tasa**

### Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

- 1.- Eskaera eta gainontzeko dokumentazioa jaso eta egiaztatu
- 2.- Sarrera erregistroa eman eta interesdunari kopia bat eman.
- 3.- Agiriak Udaltzaingora bideratu

### Prozeduraren tramiteak

- 1.- Eskaera eta gainontzeko agiriak aurkeztu.
- 2.- Udaltzaingoari jakinarazi, alta emateko
- 3.- txartelari alta emateko
- 4.- Interesatuari txartela eta bereizgarria eman (garajeen kasuan txartela bakarrik).

### Nork onartu behar du?

Udaltzaingoa

### Tramitzatzeko ardura duen udal saila

Udaltzaingoa; Agustindarren plaza 6

Informazio gehiago: 943 248900 edo [administrari-udaltzai@hernani.eus](mailto:administrari-udaltzai@hernani.eus)

### Oharrak

Bereizgarria baliorik gabe geratuko da bete beharreko baldintzak betetzen ez badira, eta kendu egingo da emateko zeuden arrazoiak desagertzen badira edo ukatzeko arrazoiren bat sortzen bada.

Udaltzaingoak, kautelazko neurri gisa, edozein txartel magnetiko edo antzeko sistema kendu edo baliogabetzeko ahalmena dauka.

**Araudi aplikagarria** *Udalak araututako aparkaleku zerbitzuaren Ordenantza.*  
*Ordenantza fiskalak*